



BARREN
TOKIKOM



Adinean sasoiko



“Gastronomia ez ezik, beste alor batzuk ere jorratzen ditugu Basque Culinaryko graduan”

Axel Nicolas Zerpak 20 urte ditu, eta argentinarra da jatorriz, baina Eibarrera etorri zen bizitzera 5 urte zituela. Egun, Gastronomia eta Sukaldaritzza Arteak graduko 3. maila ikasten ari da Basque Culinary Center – Mondragon Unibertsitateko Gastronomia Zientzien Fakultatean.

❑ Definitu apur bat zure burua: non egin dituzu orain arteko ikasketak? Ba al duzu hobby edo zaletasunik?

Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa Eibarko La Salle ikastetxean egin nituen. Batxilergo zientifiko-teknikoa aukeratu nuen, baina gradu hau ikasteko berdindio zer batxilergo mota egin duzun aurretik, dena hutsetik ikasi beharra baitago. Argi dago sukaldaritzza dela nire zaletasun nagusietako bat, baina ez bakarrik; mendira joatea ere asko gustatzen zait.

❑ Zergatik aukeratu zenuen Gastronomia gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatea - BCC-en?

Sukaldaritzza haurtzaroko oroitzapenekin lotzen dut: amona oroitzen dut sukaldean lanean, edo nire ama, egun petral bat igaro ondoren, nire zain, plater gozo batekin. Horrelako bizipen eta esperientziekin lotzen dut sukaldaritzza, eta horrek bultzatu ninduen, hain zuzen, gradu hau aukeratzera. Mondragon Unibertsitatea aukeratu dut, bestalde, gradu hau eskaintzen duen bakarrik delako mundu osoan. Gainera, gradu honek gastronomiari buruzko formazioa ematen digu, baina modu integratuean. Gastronomia ez ezik, beste alor batzuk ere jorratzen ditugu: industria, hotelak edo berrikuntza + garapena, besteak beste.

❑ Nola baloratuko zenuke orain arte bizitako esperientzia?

Hasieran, apur bat gogorra izan zen, denbora behar delako norbere burua egokitzeke, baina denbora aurrera joan ahala, gozatzen hasi nintzen. Orain pena sentitzen dut, urte eta erdiren buruan bukatuko delako. Azkar pasatu zait, gauza on guztiak nola.

❑ Nola definituko zenuke Basque Culinary Centerreko ikasteko metodologia?

Metodologia berritzailea da. Klase teorikoez gain, tailerrak ere baditugu eta haietan laneko errealitatea ezagutzen dugu eta praktikak ere egiten ditugu. Gainera, sektoreko profesionalak hitzaldiak eskaintzen dizkigute eta eguneroko euren esperientziaren berri ematen digute, zuzenean.

❑ Unibertsitatetik zer da gehien gustatzen zaizuna? Ba al dago zer hobetu?

Gehien gustatzen zaidana, lehen esan bezala, zerbitzu errealean, tailerren edo jardunaldien bidez geure burua ondo prestatzeko ematen digun aukera da. Ekitaldi hauetan ikasle guztiok daukagu aukera parte hartzeko. Berria denez, detaile txiki batzuetan hobetu daiteke, baina poliki-poliki joaten dira konpontzen.

❑ Egin dituzu praktikak?

Bai, lehenengo mailan Bergarako Lasa jatetxean izan nintzen. Bertako sukaldariei esker, asko ikasi nuen sukaldaritzza tradizionalari buruz eta pila bat lagundu dit, oinarri bat behar nuelako ondoren aurrera egiteko. Bigarren mailan salto handia eman nuen, Larrabatzura joan bainintzen, Eneko Atxaren Azurmendi jatetxera. Esperientzia bezala apur bat gogorra izan zen, baina merezi izan zuen, asko ikasi nuelako. Apirilean, berriz, Bartzelonako Enigma jatetxera joango naiz, eta han abangoardiako sukaldaritzan sakontzeko aukera izango dut.

❑ Zer egin nahi zenuke etorkizunean?

Ez daukat oso garbi, egunerokoa bizitzea gustatzen zaidalako. Hori bai, ikasten jarraitzea gustatuko litzaidake eta nire jakintza eta bizipenak besteekin partekatzeari.

EDURNE IZAGIRRE

Psikologoa

Identifikazioa eta diskriminazioa



Badugu joera natural bat "gutarrak" identifikatu eta hauetaz inguratzeko. Geure identitatearekin sintonian dagoenez inguratzen gara hau indartzeko, eta disonantea dena ekidin edo mozorrotzen dugu. Maite dugun pertsonak gaizki tratatzen gaituenean kanpo arrazoi bat bilatzen dugun bezala funtsean ona izaten jarraitzen duela sinisteko.

Geure kuadrilla hartzen badugu "gutarren" eremu, pentsa zenbat uzten dugun kanpoan! Askotan gutarren identitatea komunean dugunean baino "besteekiko" bereizten gaituenean oinarritzen da, eta hor dugu arriskua; geure artean adostasunik lortu ezin du-

gunean besteak zein ezberdin/oker kokatuak daudenari jartzen diogula behar baino arreta gehiago. Honela, etsai komunak elkartzen gaitu, izaerak edo baloreak ez bezala.

Egun hauetan guztion ahotan darabilzkigun berdintasuna, ekitatea, elkarbizitza etab. lantzeko ezinbestekoa da begirada zabaltea. Berdin sentitzen ditugunekin elkarbizitza ez digu gatazkarik sortzen, kodigo ezberdinak dituenarekin jartzen dira jokoan geure benetako baloreak. Herri baten behar aztertzeke herritar guztiak hartu behar dira kontuan; ikastetxe baten hezkuntza-eredua ezberdinak direnen trateran islatzen da, baita gurasoona ere.

Geure burua euskaldun jator eta eskuzabaltzat dugunok ez genuke inolaz onartuko diskriminazioa garenik, matxismoa konturatzeke ekiten duenak onartuko ez lukeen gisa. Honelako funtzionamenduak, genero estereotipoen gisa, gure habitataren parte izan dira jaino ginenetik eta ingurunea egokitzea izaten da gure lanik handiena.

"Kodigo ezberdinak dituenarekin jartzen dira jokoan geure benetako baloreak"



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA
Euskal Legebaitzaren Argitaletxea

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

barren@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskuiztak atal-tan adierazitakoen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA** Zalao Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Ibon Serrano, Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansola, Edurne Izagirre, Paula Heras, Enez Ezenarro, Ander Soraluze, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegui, Jone Olaizola, Juan Luis Mugeriza **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1138-1855

BABESLEA:

ELGOIBAR
UZOLA
KLUBTAMENTU

LAGUNTZAILEAK:

MENDAKO
1981

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCOKULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enrantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► XXII. PILOTA EGUNA

Ikastolaren izenean eskerrak eman nahi dizkiegu joan den larunbatean, martxoaren 9an, ospatutako XXII. Pilota Eguna antolatzen lagundu duen Elgoibarko Pilota eskolako arduradunei.

Bestalde, eskerrik beroenak parte hartu duten neska-mutilei.

Datorren urtean ere laguntzeko prest

egongo zaretelakoan, agur bero bat.

Pilota Eguneako batzordea

► OHARRA

San Jose Eguna (Martxoak 19) jai dela eta, BARREneko lantaldeak jai-zubia egingo du datorren astean, eta ondorioz, martxoaren 22an ez dugu al-dizkaririk kaleratuko. Hurrengo zenba-

kia, beraz, martxoaren 29an jasoko duzue.

Bestalde, eskuartearen duzun aldikari hau ohikoa baino laburragoa da, joan zen barixakuan, martxoaren 8an, BARREneko emakume langileok greba egin genuelako.

BARREneko lantaldea



II. URTEURRENA

Iker Amutxastegi Fernandez

2017ko martxoaren 13an hil zen, 41 urte zituela.

**Gu sortu ginen enbor beretik sortuko dira bestiak.
Ez zaitugu inoiz ahaztuko.**

Arkastatxuen taldea



Juanjo Cruz Godoy

2019ko martxoaren 4an hil zen, 56 urte zituela.

Ez zaitugu inoiz ahaztuko, betirako gure bihotzean.

Liberal - Godoy familia



Juanjo Cruz Godoy

2019ko martxoaren 4an hil zen, 56 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak.

Juanjo maitea:


Nola azaldu hitzez sentitzen duguna.

Negar egin dezakegu, joan zarelako, edo irribarre egin, gurekin izan zaitugulako.

Utzi diguzun guztiagatik, maite zaitugu, eta beti egongo zara gurekin.

Zure falta igarriko dugu.

Anai-arrebak eta ilobak



Mikel Arantzamendi da Elgoibarko udaltzainburu berria

A benduan onartu zuten lege berri baten ondorioz erretiroa hartzeko aukera izan du Javier Oñederrak, eta bere lekua Mikel Arantzamendik (Ondarroa, 1961) bete du. Nautikan Lizentziatua da ikasketaz, eta udaltzain sartu aurretik beste hainbat lan ere egin zituen. Besteak beste, itsasoan lan egindakoa da eta euskara irakasle aritutakoa ere bada. 1995ean udaltzain posturako oposizioak gainditu zituen, eta aurten 24 urte beteko ditu Elgoibarko Udaltzaingoan. 18 udaltzainek, udaltzainburuak, OTA-TAOk langileak eta administrariak osatzen dute Elgoibarko Udaltzaingoko lantaldea.



'Tratu ona adineko pertsonentzat' hitzaldia, martxoaren 20an



Udaleko Berdintasun Sailak antolatuta, Maria Jesus Goikoetxeak adikoen zaintzari buruzko hitzaldia emango du martxoaren 20an. *Tratu ona adinekoentzako* izenburupean, adinekoek dituzten eskubideei eta eguneroko beharrei buruz jardungo du, besteak beste. Maria Jesus psikologoa eta teologoa da, eta dokorea ere bai giza eskubideen arloan. Musika Eskolako auditoriumean izango da saioa datorren eguaztenean, 18:00etatik aurrera.

Jende asko ibili da Txankakuaren stock ferian



Txankakua merkatarik elkarteko dendariak saltoki bihurtu zuten Maalako parkea zapatuan. Dendari txikiak bultzada emateko asmoz, stock feria antolatu zuten, eta herritar ugari gerturatu ziren, mauka bila. Guztira, 19 saltokik hartu zuten parte, aurreko edizioan baino bi gutxiagok. 14:00etan puntuan 100 euroko sei erosketa txeke zituzten, eta une horretan Maalako parkea jendez gainezka egon zen, sariak eskuratzeko ezinbestekoa zelako saritutako txartela zozketaren unean bertan agertzea. Hauek izan dira aurtengo irabazleak: Hananees Saoudy; Nora Mugerza, Maria Sol Perez, Lorea Goikoetxea, Lucia Larrañaga eta Lourdes Azkune.

Gazteei lana bilatzen laguntzeko egitasmoa abiatu du Debegesak

Goi mailako ikasketak dituzten 20 eta 44 urte bitarteko gazteei lana bilatzen laguntzeko Hazilan egitasmoa jarri du martxan Debegesak. Maiatzean hasiko da, eta partaideek euren neurria egokitutako prestakuntza jasoko dute. Lehenengo, euren gaitasun pertsonalak eta profesionalak hobetzeko trebakuntza jasoko dute, eta gero, enpresetan praktikak egiteko aukera izango dute. Aurreko edizioetan 66 lagunek hartu dute parte (39 emakumezko eta 27 gizonezko), eta horietatik 41ek lana aurkitu dute programa amaitu eta lehen sei hilabeteren barruan. Egitasmo honi buruzko informazio saioa antolatu dute martxoaren 28rako. 11:00etan izango da, Eibarko Armeria Eskolan.



Mundu bat

Emakumeek hartu zituzten kaleak joan zen ostiralean, greba feministaren harira deitutako mobilizazioetan. Egun osoz batzuek eta mobilizazio-orduetan beste askok planto egin zuten, emakumeek egiten dituzten lanak egiteari utziz gero mundua gelditu daitekeela erakusteko, eta irudi ikusgarriak eman zituen egunak. Ikastetxe, enpresa eta beste hainbat egoitzetan ere grebari babesa agertzeko argazkiak egin zituzten emakumeek, baina guk kaleko mobilizazioek emandako irudi ikusgarrien sorta bat ekarri dugu hona (gainerako argazki denak eta bideoak ikusteko: www.barren.eus). Elgoibarren, bi protesta-ekintza egin zituzten, eguerdian bata, eta iluntzean, bestea, eta jendetza izugarria batu zen bietara. Mendaron, berriz, elkarretaratzea egin zuten eguerdian, eta ondoren, iragarri gabe bazegoen ere, manifestazioa egin zuten Herriko Enparantzan hasi eta Azpilgoeta eta Mendarozabal auzoetan barrena.







“Eguneroko saioa korrika gehiago egiteko gogoz bukatzean dago sekretua”

▶ JUAN MANUEL JUARISTI

KIROLZALEA

Ez da oharkabea pasatzen Juan Manuel Juaristi (Ereño, 1940) Mintxetako erabiltzaileen artean, eta ezaguna da eguerdian Mintxetako kirolgunera gerturatzen direnen artean. Istripu baten ondorioz hasi zen korrika egiten 55 urte zituela, eta ordutik ez dio laga korrika egiteari. 78 urte ditu orain, eta pisuzko arrazoiren batengatik ez bada behintzat, ez du hutsik egiten Mintxetako berdegunean. Sasoiko dago, osasuntsu, eta hori guztia korrika egiteak eman dio. Lotsatia da, hitz gutxikoa eta ez da protagonismo zalea, baina beste batzuentzat eredu izan daitekeelakoan onartu du bere istorioa kontatzea.

- AINHOA ANDONEGI -

◆ Noiz eta nola hasi zinen kirolean?

1995. urtean, 55 urte nituela, istripu bat izan nuen. Donostian bizi nintzen eta han egiten nuen lan. Lanetik irten eta etxera bidean zabor edukiontzi batzuen ondorekin pasatu nintzen. Antza denez, norbaiti olio-edo erori zitzaion lurrera, zaborra botatzerakoan, eta laban eginda erori nintzen lurrera. Kolpe handia baino gehiago, kolpe txarra izan zen. Hanka tolestu eta gorputzaren pisu guztia hanka haren gainean geratu zitzaidan. Berehala eraman ninduten ospitalera, eta kirolfana sartu ninduten zuzenean. 16:00etarako ebakuntza egiten ari ziren. Izarretik belanera doan tendoia apurtu nuen, kuadricepseko tendoi potolo bat. Urte batzuk aurretik toki horretan bertan zaldi batek ostikada bat eman zidan, eta nik uste dut ordutik ahulduta neukala tendoi hori. Erori nintzenez, erabat apurtu nuen.

◆ Bistan da, baina, ondo errekerperatu zarela, egunero ikusten zaitugu-eta Mintxetan korrika. Sasoiko zaude.

55 urtera arte ni baino kirol gutxiago egin duen pertsonarik ez da inon egongo. Futbolekin ere ez dut inoiz jokatu. Ikuskizun modura gustatzen zait, baina jokatzeko ez. Nire kirola umetan pilota zen, eta gaztetan tarteka joaten ginen mendira-edo, baina korrika? Sekula ez. Istripua izan nuenean hasi nintzen kirola egiten. Ebakuntzaren ondoren 40 egunez egon nintzen igeltsoarekin, hanka mugitu gabe. Geldi-geldi egon nintzen 40 egunez. Erraz esaten da, baina egun asko dira 40 egun, eta igeltsua kendu zidatenean, hanka indarririk gabe neukan. Ez giharririk eta ez ezer. Medikuek argi esan zidan hura berreskuratzeko onena korrika egitea zela. Lesio berberagatik berriro bere kontsultan ikusi nahi ez ninduela ere esan zidan. Kasu egin nion, eta nire esku zegoen guztia egingo nuela erabaki nuen. Niretzako hau da, orain, nire lana; nire buruari jarri diodan obligazioa. Beste batzuk lanera joaten diren moduan, ni korrika egitera joaten naiz Mintxetara. Konturatu naiz, gainera, ezin dudala utzi. Korrika egiteari uzten badiot, hanka mindu egiten zait. Hasierako urteetan abuztua iristen zenean edo Aste Santuko oporraldia, korrika egiteari uzten nion, eta segituan hasten zitzaidan mina. Orain ez dut eten handirik egiten. Eguraldi oso txarra ez bada edo gaixorik ez banago, ez dut hutsik egiten.

♦ **Kirolak harrapatu egiten zaituela esaten dute. Zure kasuan horrela izan da, ezta?**

Bai, poliki-poliki hasi nintzen, baina aitortu behar dut gustua hartu diodala. Pista Beltzean hasi nintzen, baina hango lurra gogorra da eta ez nintzen oso gustura ibiltzen. Gero, Mintxetara joaten hasi nintzen, atletismo pista. Hura ere ez zitzaidan eroso egiten, eta sarri mintzen zitzaidan belaua. Egun batean belarretan probatzea bururatu zitzaidan, eta hura izan zen nire salbazioa. Akabo nire min guztiak. Orduetik belarretan egiten dut korrika, eta dozena bat urte izango dira lesiorik ez daukadala.

♦ **Men sana, in corpore sano...**

Ez dago dudarik. Korrika egiten hasi nintzenean baino hogei bat kilo gutxiago dauzkat orain, eta askoz hobeto sentitzen naiz. Elikadura ere zaintzen dut apur bat, baina denetik jaten dut. Nork esan behar zidan niri istripu hark zeozer ona ekarriko zidanik! Istripu hari esker nire bizimodua aldatu nuen, osasuntsu nago eta oso gutxitan joaten naiz medikuarengana. Edonori gomendatuko nioke kirol apur bat egitea. Kirolak ez dauka adinik, eta edozein adin da ona kirola egiten hasteko. Askok uste dute gazietan ez bazara hasten, gero beranduegi dela, baina inoiz ez da berandu. Jakin egin behar da, baina, adin bakoitzari zer tokatzen zaion. Nik ahal dudan bitartean behintzat korrika egiten jarraituko dut. Gidabaimena berritzaera joan nintzenean medikuak galdetu zidan ia ebankutzarik edo eginda neukan, eta kontatu nion zer daukadan. Gurpildun aulkian geratzeko moduko lesioa dela esan zidan. Korrika egiteari esker nago ni orain horren sasoiko. Benetan gomendio ona egin zidan medikuak. 'Corre' esan zidan, eta orduetik korrika nabil. Korrika egiteari uzteko beldur naiz, uste dudalako geratzen naizen egunean mina itzuliko dela. Korrika egiteko gai ez naizen egunean, beste zerbait egiten hasi beharko naiz, giharrak lanean mantentzeko.

♦ **25 urtean ia hutsik egin gabe egin duzu korrika eguneroko. Zein da ez aspertzeko sekretua?**

Eguneroko saioa korrika gehiago egiteko gogoz bukatzea da sekretua. Nire arreba batek esaten zuen mahaitik gose apur batekin altxatu behar dela, eta hau ere berdina da. Gogaituta amaituz gero, bueltatzeko gogoa joaten da. Nik eguneroko egiten dut berdina: kalean bizi naiz, eta oinez igotzen naiz Mintxetaraino. Futbol zelaiaren kanpoko aldetik buelta pare bat egiten ditut lehenengo oinez, apur bat berotzeko. Gero, karrera batzuk egiten ditut 10 bat minutuz, apur bat gogor, ondo berotzeko, eta azkenik, 25 bat minutuz korrika aritzen naiz, baina gehiegi berotu gabe, suabe. Luzaketak egin, eta gero, buelta berriz oinez etxera. Guztira 45 bat minutu-edo egingo ditut. Horixe da sekretua, eguneroko saioak luzeegiak ez izatea eta hurrengo egunean berriz bueltatzeko gogoz amaitzea. Jende asko gogorregi hasten da kirolean. Gazteak, esate baterako, lehiarako joera daukate; lasterketak, maratoiak eta horrelakoak modan jarri dira, eta horietarako

“Korrika egiteko gai ez naizen egunean beste kirolen bat probatu beharko dut”

prestatzeko, korrika pila bat egiten dute denboraldi batez, eta gero, laga egiten dute. Eta hori ez da ona. Kirola gogorregi egiteak ere faktura pasatzen du. Medikuek ere kirola tamainan egiteko gomendatzen dute. Nik sekula ez

dut lasterketa batean parte hartu, ez zait gustatzen. Gutxinaka egiten dut korrika, eguneroko apur bat, eta ez dena batera.

♦ **Entrenamendu saio neurtua eta profesionala dirudi. Entrenatzailearen batek jarritakoa da ala zeure kabuz ikasitakoa?**

Nik neuk hartu diot tamaina gorputzari eta eguneroko saioari. Mintxetako Argiñek ere esan zidan behin berak gidatzen duen talde batekin parte hartzeko, baina ezetz esan nion. Ikusi nituen han Mintxetako harmailetak eskaileretan gora eta behera ariekit egiten, eta hori ez dut uste niretzako modukoa denik.

♦ **Elgoibarren bizi zara, baina zure hizkera ez da hemengoa. Noiz eta nola iritsi zinen Elgoibarrera?**

Ereñon jaio nintzen, Gernika alboko herrian. Nire ama Ereñokoa zen, eta aita Elgoibarkoa, Apraiz baserrikoa. Arotza zen aita, eta han egiten zuen lan osaba batekin. Han ezagutu ziren nire gurasoak, gerra hasi zen egunean. 1940an jaio nintzen ni Ereñon, amonaren etxean. Gerra ondoren Bilbon egon ginen bizitzen, baina gose garaia iritsi zen, eta han ez geneukan jateko askorik. Bi urte nituela Elgoibarrera etorri ginen. Elgoibarren aitaren familiakoen baserria geneukan, eta baserriatik beti iristen zitzaigun zerbait jateko. San Frantzisko kalean jarri ginen bizitzen, eta etxepean zabaldu zuen aitak aroztegia. Gerora, Santa Ana kalean jarri zuen negozioa, eta han eduki zuen aroztegia 40 bat urtez. Estazio kaleko lehenengo etxeak nire aitak egindakoak dira.

♦ **Aita arotza, eta zu arkitektoa. Garai hartan ez zen ba erraza izango arkitektura ikasketak egitea, ezta?**

13 urte egin nituen arte Pilar ikastetxean ikasi nuen, eta gero, 20 urte egin nituen Elgoibartik kanpora ikasten. Oinarrizko Batxilergo ikasketak egin nituen Bilbon lehenengo, eta gero, Bartzelonara joan nintzen hiru urterako, aparejadore ikasketak egitera. Soldaduzka egin nuen Zamoran, eta ondoren, Madrilera joan nintzen arkitektura ikastera. Lehenengo ikasturtea izaten zen txarrena. 700 bat lagunek hasi genituen ikasketak, baina bigarren ikasturterakoa 100 bakarrik pasatu ginen. Sekulako garbiketa egiten zuten. Urte askotako ikasketak dira, eta kostatu zitzaidan amaitzea, baina lortu nuen. Ikasle sasoiak kirolik ez nuen egiten, ez neukan denborarik. Ikasi eta ikasi, besterik ez nuen egiten. Gero lanean hasi nintzen, eta arkitekto lana ez da erraza, lanbide gogorra da. Baina aldi berean polita da, niri asko gustatzen zait. Aitarekin lanean hasi nintzen lehenengo, eta gero, nire kontura hasi nintzen. Azken lan-urteak Donostian egin nituen. 1997an, aita hil zenean, ama bakarrik geratu zen, eta lana uztea erabaki nuen, amari laguntzera etortzeko. Elgoibarrera itzuli nintzen, eta hemen bizi naiz orduetik.

Elgoibartarren euskaltzaletasuna sustatzeko, bi hitzaldi antolatu dituzte Hasier Etxeberriaren oroimenezko zikloan



Andres Alberdi



Mikel Zalbide



Xamar

Elgoibarko Izarra kultur elkarteak eta Elgoibarko Udalak *Biba Hasier!* ekimena antolatu dute bigarren urtez, Hasier Etxeberria idazle eta euskaltzalearen oroimenez. Elgoibartarren artean euskaltzaletasuna sustatzeko helburuarekin, bi hitzaldi antolatu dituzte: Martxoaren 27an izango da lehenengoa. Mikel Zalbide eta Andres Alberdik euskara batuaren inguruan jardungo dute, eta apirilaren 3an, *Etxera bidean*, Xamarrekin hitzaldia

emango du Xamar berak. Bi hitzaldiak Kultur Etxeko hitzaldi gelan izango dira, 19:00etan.

Euskara batua hizpide, hilaren 27an

Euskara batua abian jartzea izan da seguru asko azken urteotan euskararen egin den urratsik emankorrenetako bat. Onarpen zabala lortu du, gainera, gizarteko alor guztietan. Gerora begira, hala ere,

erronka bat baino gehiago dago oraindik zerumugan: Zein dira erronka horiek? Nola gainditu daitezke?

Mikel Zalbidek erantzungo die Andres Alberdik jarritako puntuei. Zalbide euskaltzain osoa da 2006tik. 2018ko Arantzazuko XVII. Biltzarrean, bera izan zen Euskaltzaindiaren sorrerari eta euskara batuaren egitasmoari buruzko txostengile nagusia. Alberdi, berriz, euskaltzain urgazlea da.

'Elgoibarko zuhaitzak' liburua aurkeztuko du Andoni Segundok

Elgoibarko zuhaitzei buruzko gidaliburua idatzi du Andoni Segundok Udalaren laguntzaz, eta datorren eguenean egingo du aurkezpena, 18:00etan, Kultur Etxean. Elgoibarko herriguneko espazio publikoan dauden zuhaitz espezieak identifikatu eta liburu batean jaso ditu. 65 bat espezie desberdin aurkitu ditu Elgoibarren. Hostoak identifikatzeko gako dikotomikoak, zuhaitzen euren kokapena, espezieen ezaugarriak eta beste hainbat datu kurioso jaso ditu liburuan. Gida didaktikoa da, ikastetxeetan erabiltzeko modukoa. Natur Zientzietako irakaslea izan da Segundo, eta betidanik izan du natur gaietarako zaletasuna.



'Kontrako eztrittik' liburua aurkeztuko du Uxue Alberdik eguaztenean, Pitxintxun

Hamabost emakume bertsolariren testigantzak jaso ditu Uxue Alberdi idazle elgoibartarrak *Kontrako eztrittik* liburuan (Lisipe bildumako bosgarren zenbakia da). Bertsolaritza, genero ikuspegitik landu du Uxuek. Datorren eguaztenean aurkeztuko du liburu, Elgoibarren, Danele Sarriugarteren laguntzarekin. Pitxintxu opari dendan izango da saioa, hilaren 20an, 19:00etatik aurrera.



'Oin Alai' egitasmoko boluntarioen lana eskertzeko sariak banatu ditu Udalak



Mugikortasun iraunkorra sustatzeagatik saritu ditu Udalak *Oin alai* egitasmoko erabiltzaileak eta boluntarioak. Idoia Alvarez Ingurumen Saileko teknikariak, Andrea Arriola Kultura zinegotziak eta losu Arraiz Hirigintza zinegotziak datozen egunetan Elgoibarren izango diren antzezlan eta zine emanaldietarako sarrerak banatu zizkieten joan den astean eskolarako bidea Oin Alairekin egiten duten 38 ikasleri. Era berean, Txankakuako kide diren dendetan gatzatzeko 50 euroko 19 erosketa-txartel banatuko ditu Udalak boluntarioen artean, egitasmoa aurrera eraman ahal izateko horien lana "ezinbestekoa" delako.

Elgoibarko institutuko DBHko ikasleek eginiko musika tresnen erakusketa egingo dute datorren astean

Bigarren eba-luketako musika eta teknologia ikasgaiaren barruan, musika tresnak sortu dituzte Elgoibarko institutuko DBHko ikasleek, eta lan horiek ikusgai jarriko dituzte datorren astean, Kultur Etxeko erakusketa gelan. Luthier baten lana hobeto ulertzeko balio izan du proiektuak. Luthiergintza



musika tresnak egin eta konpontzeko ofizioa da, eta lan horretan aritu dira ikasleak. Material ezberdinak eta teknika ezberdinak erabilita, harizko, haizezko eta perkusiozko musika tresnak egin dituzte. Erakusketa martxoaren 20an eta 21ean izango da, 18:00-20:00etara. Musika tresnak eta bakoitzari dagokion informazio-txostena jarriko dituzte ikusgai.

Anarik kontzertua emango du gaur, Gaztetxean

Elgoibarko Gazte Asanbladak antolatuta kontzertua emango du Anarik (Azkoitia, 1970) gaur gauean Sutegixan, Elgoibarko Gaztetxean. Anarik 1997an egin zuen debuta, eta orduetik bakarkako bost disko eta Pettirekin elkarlanean egindako beste bat kaleratu ditu. Rock estiloko musika egiten du batez ere. 23:00etan hasiko da emanaldia. Sarrerak 6 euro balio ditu, eta aurrez erosteko aukera dago Pitxitxun.

Motxaila Eguneko bertso saiorako sarrerak salgai daude

Motxaila Eguneko bertso saioa antolatu dute Mendaron martxoaren 29rako, eta dagoeneko salgai daude sarrerak. Aitz Beltz tabernan edo Morroskilo dendan erosi daitezke, 5 euroan. Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Alaia Martin eta Amets Arzallus izango dira bertsolariak, eta Maialen Olazabalek egingo ditu gai-jartzaile lanak. San Agustinen izango da saioa, 22:00etan.

Trinitateetako danborradako kartel lehiaketa martxan da

Atabal elkarteak kartel lehiaketa antolatu du Trinitate Jaietan egiten den nagusien danborrada iragartzeko. 18 urtetik gorakoek hartu dezakete parte, bakoitzak nahi duen teknika erabilita, baina ezinbestean agertu beharko da ondorengo testua: "Elgoibarko 2019ko danborrada. Ekainaren 15ean, 23:00etan". Kartel irabazleak 300 euroko saria jasoko du. Parte hartzeko epea maiatzaren 17an bukatuko da.



Pilota plazara atera du Ikastolaren Pilota Egunak

Pilota Egunaren 22. ekitaldia egin zuten martxoaren 10ean Kalegoen plazako frontoi zaharrean. Elgoibar Ikastolak, Lagunak Pilota Eskolaren laguntzarekin, gaztetxoen artean pilota eta kirola sustatzeko antolatzen du Pilota Eguna. Ikastolako 6 eta 13 urte bitarteko neska-mutilek hamahiru partida jokatu zituzten, 12 tantora. Sari banaketa ekitaldian, partiden hasieretan bezala, Aspe enpresako pilotari profesional Beñat Garmendiaren (Beasain, 1997) laguntza izan zuten antolatzaileek.

Astigarraga GYS Sport taldeak etxean jokatuko du Euskadiko Txapelketak

Olaizaga kiroldegian jokatuko dute asteburuan jubencil mailako emakumezkoen Euskadiko Eskubaloi Txapelketa. Hala, Sanlo kirol taldeko Astigarraga GYS Sport taldeak zaleen aurrean izango du jokoan tituloa. Etxeko taldeak Aiala-Zarautz, Zuazo eta Kukullaga-Etxebarri taldeak izango ditu aurkari. Gaur, hilak 15, Zuazoren aurka jokatuko dute elgoibartarrek, 19:30. Zapatuan ere 19:30ean izango da etxekoen eta Kukullagaren arteko partida. Domekan 13:00etan jokatuko du Astgarragak Aiala-Zarautzen aurka..

Hiru elgoibartarrek zapaldu zuten podiuma Alta Ruta Pyrene mendi eskiko lasterketan

Euskal Herriko koparako proba puntuagarria den Alta Ruta Pyrene mendi eski lasterketa jokatu zuten martxoaren 11n, Linzan. Arkaitz Iruretak eta Javi Dominguezek neurria hartua diote proba honi eta bigarren postua lortu zuten, bigarren urtez jarraian. Duela bi urte eurek irabazi zuten proba. Asier Arregik eta Mayi Mugikak osatutako bikotea txapeldunorde izan zen bikote mistoetan. 22 kilometro eta 2.200 metroko desnibel metatua zuen ibilbidean lehiatu ziren. Linzako lepotik hasi, Atxeritoko leporaino igo, Foya del ingeniero sakonera jaitsi, Sobarcalera igo, eta ondoren, Petretxemako tontorra igo zuten eskiatzaileek, berriro Linzan bukatzeko.



Hodei Ezpeleta eta Julen Larrea nagusi Urrezko Aizkolari Txapelketan, 23 urtez azpikoetan



Urrezko Binakako Aizkolari Txapelketaren finala jokatu zuten martxoaren 2an, Azpeitiko Izarritz pilotalekuan. Hodei Ezpeleta aizkolari mendarorak 23 urtez azpikoan hartu zuen parte Barakaldoko Julen Larrea *Larrea III*.arekin batera. Txapelketan parte hartzen zutenen artean gazteena izateaz gainera [19 urte ditu], Ezpeletaren debuta izan zen Urrezko Binakako Aizkolari Txapelketako finalean. Hamabi minutu eta hamabi segundoan moztu zituzten enborrak. Gazte mailako aizkolariek sei enbor moztu behar zituzten, bi eratan: etzanda, 45 ontzako bi enbor -aizkolari bakoitzak bat-; eta, lan erditan, txanda librean, 60 ontzako lau enbor. Oier eta Xuban Cañamares anaiak sailkatu ziren bigarren postuan (12:41).

Elgoibarko eta Mendaroko 55 emakumek hartu zuten parte Lilatoian



Lilatoia lasterketaren 30. ekitaldia jokatu zuten martxoaren 10ean, Donostian, 30 urte berdintasunaren sustraiak sendotuz lelopean. 5.437 emakumek amaitu zuten 4,7 kilometroko proba, tartean 39 elgoibartarrek eta 16 mendaroarren. Ohi legez, Bulebarrean hasi eta bukatu zen lasterketa eta Lorea Ayala donostiarra izan zen azkarrena, bigarren urtez jarraian. Gure ordezkariak dagokionez, Lore Bereziartua Unzueta izan zen lehen sailkatua. Sailkapeneko 70. postuan ailegatu zen helmugara, eta 21 minutu eta 26 segundo behar izan zituen proba bukatzeko. Mendaroarren artean, Virginia Urruzola Cordoba izan zen azkarrena. Sailkapenak barren.eus webgunean.

Muturreko Enduroan munduko txapelduna den Mario Romanek ikastaroa eman zuen Elgoibarren

Urnobitza Kirol Klubak antolatuta, Mario Romanek enduro ikastaroa eman zuen Elgoibarren, aurreko asteburuan. 29 urteko motor gidari madrildarra munduko txapelduna da muturreko enduroan, Hard Xtreme modalitatean. Proba oso gogorak izaten dira eta amaitzea bera oso zaila da. Horrelako proba batzuetan ohikoa izaten da irteera hartzen duten 500 partaideetatik bost bakarrik ailegatzea helmugara. Txapelketetan lehiatzeaz gainera, Romanek munduan barrena bidaiatzen du ikastaroak emanez. Elgoibarko motor gidariek gainera inguruko herrietatik joandako hogeitasei lagun batu ziren Urruzuno bailarako auzotarren elkartearen artean eman zuten ikastaroa. Alde praktikorako elkartearen kanpoaldeko aldapa pikoak erabili zituzten, Romanek irakatsitakoa praktikan jartzeko.



Euskal Herriko Itzulia Karakatekik igaroko da

Apirilaren 8tik 13ra jokatu den Euskal Herriko Itzulia txirrindularitza probako etaparik gogorrena, azkenekoa, Karakateko malda pikoetatik igaroko da estreinakoz. "Karakateko mendatea" deitu diotena izango da berritasun handiena: Maltzagatik Sorluzen sartu eta Ezoziko auzoko hormigoizko bidean gora joan beharko dute, Kiruetako bidegurutzera heldu arte. Handik, San Andres auzoan behera jaitsiko dira, Bergara alderantz joateko. Igoeraren erdia asfaltozkoa da eta beste erdia porlanezkoa.

Txirrindulari gaztetxoentzako ginkana

Lagun Taldea txirrindulari eskolak antolatutako ginkanan hartu zuten parte Deba bailarako alebin eta infantil mailetako txirrindulari gaztetxoek, aurreko zapatuan. Ikastolako frontoian egin zuten ginkanan bizikleta gainean duten trebezia erakustez gainera, umeek ederki pasa zutela azaldu dute Lagun Taldeko kideek.



LANA.....
Eskaerak

Adinekoak zainduko nituzke. Esperientzia daukat eta mendeko pertsoneri arreta sozio-sanitarioa emateko ziurtagiri profesionala. ☎ 671 989 434

Adinekoak zaindu eta garbiketarako egiteko prest. Asteburuetan ere bai. ☎ 657 363 453

Adinekoak edo umeak zainduko nituzke. Ospitalean ere bai. Orduka, asteburuetan eta etxeko langile moduan jarduteko prest. ☎ 612 476 921

Adinekoak edo umeak zainduko nituzke. Ospitalean ere bai. Orduka, asteburuetan eta etxeko langile moduan jarduteko prest. ☎ 612 574 783

Erizaina lan bila. Pertsona nagusiak zaintzeko prest. ☎ 632 752 739

Ostalaritzan jarduteko edo adinekoak zaintzeko prest. Esperientzia handia. ☎ 602 811 319

Adinekoak edo umeak zainduko nituzke. Etxeko langile moduan aritzeko prest. ☎ 664 087 760

Adinekoak edo umeak zainduko nituzke. Etxeko langile moduan aritzeko prest nago. ☎ 688 825 514

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketara lanak egiteko prest nago. Orduka edo asteburuetan. ☎ 612 296 098

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketara lanak egiteko prest nago. Orduka edo asteburuetan. ☎ 602 027 589

30 urteko esperientzia duen zaintzaile euskalduna eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Tituluduna. ☎ 943 742 330 / 660 511 781

Adinekoak eta umeak zainduko nituzke. Esperientzia. ☎ 632 679 710

Adinekoak eta umeak zainduko nituzke. Garbiketarako ere egiten ditut. Ordu-tegi malgua, berehala hasteko prest. ☎ 615 526 482

Adinekoak zainduko nituzke. Titulazioa eta esperientzia ditut. ☎ 628 529 252

Astegunetan garbiketarako egiteko eta asteburuetan adinekoak zaintzeko prest nago. ☎ 643 464 072

Edozein lan egingo nuke. ☎ 643 781 722

Lan bila nabil. ☎ 602 323 088

Ostalaritzan egingo nuke lan. Esperientzia handia. ☎ 602 117 009

Umeak edo adinekoak zaintzeko edo etxeko garbiketara lanak egingo nituzke, orduka nahiz etxeko langile moduan. ☎ 643 374 471

Adinekoak zaintzeko eta garbiketarako egiteko prest nago. ☎ 650 393 576

Etxeak garbitzeko prest nago. Orduka. ☎ 602 620 907

Adinekoak eta umeak zaintzeko eta garbiketara lanak egiteko prest nago. Orduka. ☎ 631 995 976

Adinekoak eta umeak zaintzeko eta garbiketara lanak egiteko prest nago. Orduka. ☎ 632 452 026

Adinekoak zaintzeko eta garbiketarako egiteko prest nago. Berehala hasteko moduan. ☎ 631 063 561

Adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia daukat. Etxeko langile moduan aritzeko prest. ☎ 631 470 506

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketara eta lisaketa lanak egiteko prest nago. ☎ 632 642 350

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketara eta lisaketa lanak egiteko prest nago. ☎ 631 145 986

Adinekoak edo umeak zainduko nituzke. ☎ 632 356 066

Adinekoak zaintzeko eta garbiketarako egiteko prest nago. Orduka eta jardunaldi erdian. ☎ 677 895 202

Adinekoak zaintzeko eta garbiketarako egiteko prest nago. Lorezain jarduteko edo txakurrak paseatzeko ere prest. ☎ 697 820 143

Adinekoak zainduko nituzke. ☎ 631 714 921

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketara lanak egiteko prest. Etxeko langile moduan. ☎ 644 558 390

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketara lanak egiteko prest. ☎ 622 153 750

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko prest. Esperientzia eta malgutasun osoa. ☎ 631 980 741

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest. Orduka edo etxeko langile moduan. ☎ 612 476 921

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest. Orduka edo etxeko langile moduan. ☎ 612 574 783

Adinekoak zaintzeko prest nago. Ospitalean ere bai. ☎ 631 906 590

Adinekoak zaintzeko prest nago. Ospitalean ere bai. Umeak zaindu eta garbiketara lanak ere egingo nituzke. ☎ 632 796 081

Adinekoak zaindu eta garbiketarako egiteko prest nago. Ospitaleko zaintzak egiteko ere prest. ☎ 631 822 545

Adinekoak zainduko nituzke. Etxeko langile moduan aritzeko prest. ☎ 602 814 756

Adinekoak zaintzeko edo garbiketarako egiteko prest nago. Orduka. ☎ 655 094 800

Umeak edo adinekoak zaintzeko prest nago. ☎ 678 112 785

Adinekoak zainduko nituzke, orduka. Ospitalean gauak pasatzeko prest. ☎ 685 185 462

Adinekoak eta umeak zaintzeko edo garbiketarako egiteko prest nago. Esperientzia daukat. ☎ 669 894 049

PARTIKULARRAK.....
LH eta DBHko eskolak ematen dira. Baita Batxilergoko ingelesa ere. ☎ 630 055 077 / 666 667 183

LH, DBH eta Batxilergoko matematika, kontabilitatea eta finantza ekonomia klase partikularrak ematen dira. ☎ 666 042 710

ETXEBIZITZAK.....
Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ 631 637 966

GARAJEAK.....
Garajea salgai San Roke 10ean, kiroldegi ondoan. 20m². Ateak 2,25 metroko altuera dauka, eta barruan altitilo bat egiteko aukera. Kotxe handi edo furgonetarentzat egokia. ☎ 669 894 049



administradores Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas
Euzko Alkartasunaren Erakundeak



ROSA M^a PINTADO

Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net

Gure komunitateko portalean berrikuntzak egingo dituzte, baina etxe-jabe batzuk ez gaude berrikuntza horiekin konforme. Jakin nahi nuke gastu horiek ordaintzera derrigortuta gauden.

Legediak salbuespen bat dauka gai honetan, eta erantzuna portalaren berrikuntzaren arrazoien araberakoa izango da: Berrikuntza hori eraikuntzaren ezaugarri eta izaeraren kontserbazio egokiari lotuta badago, etxe-jabe guztiek ordaindu beharko dituzte gastuak, nahiz eta ados ez egon eta kontra bozkatu. Baina portaleko berrikuntza ez badago irizpide horri lotuta, komunitateko kuotaren 3 hilabeteko kopurua gainditzen ez badu soilik eskatu ahal izango zaie gastu hori ordaintzeko erabaki horrekin ados ez dauden etxe-jabeei.

Muturreko egoeretan ez da horrelako arazorik gertatzen. Eraikinak su hartu badu, ez dago dudarik berritzea derrigorrezkoa dela eta denen artean ordaindu behar dela.

ONDORIOA: Eraikinaren ezaugarrien arabera, irizpidea erlatiboa da. Helburua eraikina hobetzea bada eraikinaren kokapenari eta etxe-jabeen erosketa mailari dagozkion mugak gaindituz, ulertu daiteke kapitxoz egiteko berrikuntza bat dela, eta ondorioz, eskatu ahal zaie erabakia hartu dutenei bakarrik ordaintzea. Erdibidean egongo litzateke zalantza egoera, eta horrek interpretazioa beharko luke. Obraren neurria eta obra hori egiteko beharra aztertu beharko liriateke, eta horrek iritzi desberdinak sortuko lituzke.

NORFO



Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENEko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Zorionak, **Arike**, maittia. Etxeko denon partez.



Zorionak, **Ane!** Danel, Irati, Uxue, June eta Mikelen partez.



Zorionak, **Nahia**, martxoaren 12an 9 urte bete zenituelako. Muxu handi-handi bat familiako guztion partez.



Zorionak, **Amets!** Gaur 5 urte egin dituzu! Mutil handi bihurtu da etxeko txikia. Muxu potolo bat Unax, Ekain, Danel eta etxeko guztion partez!



Zorionak, **Lara**, atzo 9 urte egin zenituelako. Jarraitu horren alai eta txinxo! Muxu asko familiakoen, eta bereziki, Paulen partez.



Zorionak, **Asier**, atzo, martxoak 14, 6 urte bete zenituelako. Muxu bat familiako guztion partez.



Zorionak, **Danel** eta **Sabin!** Gaur 3 urte! Muxu asko familiako guztien partez.



Zorionak, **Asier**, atzo 6 urte bete zenituelako. Familiakoen eta bereziki, Mainerren partez.



Zorionak, **Telmo** eta **Iñigo**, bihar 7 urte beteko dituzuelako. Patxo potolo bat, etxeko guztion, eta bereziki, Antxon eta Nerearen partez.

IKASBAI
AKADEMIA

IKASGO
ACADEMY

IKASBAI
AKADEMIA
KLASE PARTIKULARRAK

- LH
- DBH
- GAI GUZTIAK
- TALDE TXIKIAK
- EUSKARA ERREFORTZUA

667 261 248
(Leire)

Basarte 13, behea - Elgoibar
akademiaelgoibar@gmail.com



LAGUNAK
colchoneria textil hogar

LASTAIRA %100 NATURALA



..TERXY QUERCUS

KALITATE HANDIENeko ATSEDENEAN ESPEZIALISTAK

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com

ZOZKETA

IRABAZLEAK



Klik!
Klik!
Klik!

Begoña Elizondo eta Nerea De La Cruz izan dira inauterietako argazki zozketan saridunak.

Errigorak emandako otar bana jasoko dute.
Argazkiak ikusteko: barren.eus

Zorionak!






15 BARIXAKUA

23:00 Kontzertua: Anari. Gazte Asanbladak antolatuta, Sutegixan (Gazte txean). Sarrera, 6 euro. Pitxintxun erosi daitezke sarrerak.

16 ZAPATUA

19:00 Garagardo artisau feria. Mendaroko Gaztetxean.

17 DOMEKA

16:30 Antzerkia: *Inondik inora*. Herriko Antzokian.

20 EGUAZTENA

18:00 Hitzaldia: "Adinekoentzat tratu onak". Maria Jesus Goikoetxeak emango du, gaztelaniaz. Musika Eskolako auditoriumean.

19:00 Liburuaren aurkezpena: 'Kontrako eztarririk'. Danele Sarruiartek egingo dio elkarrizketa Uxue Alberdiri. Pitxintxu liburu dendan.

21 EGUENA

18:00 Aurkezpena: 'Elgoibarko Zuhartzak' liburua aurkeztuko du Andoni Segundok. Kultur Etxean.

19:00 Elgoibarko Isiltasun Eskolaren meditazio topaketa. Kultur Etxeko sotoan.

22 BARIXAKUA

17:30 Odol ateratzeak. Mendaroko ikastolan.

20:30 Ballet emanaldia: *Giselle*. Aurrez grabatutako formatoan. Herriko Antzokian.

24 DOMEKA

12:30 Udal Musika Bandaren kontzertua. Herriko Antzokian.

1. *Paso quebrado* (Luis Cardoso).
2. *Concerto Grosso* (Jan Van Der Roost)
Tronpeta bakarlarria: Vicente Olmos.
Tronboi bakarlarria: Miguel Arbelaz.
(Bilboko Orkestra Sinfonikoko bakarlarriak).

3. *Dutch Masters suite* (Johan De Meij).

a) *La ronda de noche* (Rembrandt)

b) *La carta de amor* (Vermeer)

c) *El día del príncipe* (Jan Steen)

25 ASTELEHENA

19:00 Epeletan euskal literatura tailerra: *Kristo irakiarra*, Hassan Blasim. Gotzon Garate Udal Liburutegian.

19:00 Kontzertua: Musika Eskolako talde instrumentalak. Musika Eskolan.

26 ASTEARTEA

18:00 Literatura tailerra: Haizeak antolatuta, Leon Tolstoyren *Guerra y paz* liburua landuko dute.

27 EGUAZTENA

19:00 *Biba Hasier!* Ekimena. *Euskara Batua: Zer lortu da? Zein dira erronkak?* Elgoibarko Izarrak antolatuta, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

28 EGUENA

18:00 Hitzaldia: *Nola sustatu berdinkideen arteko errespetua?* Kalamua guraso elkarteak, Arreiturrekoak, Haurreskolako eta Ikastolako guraso taldeek eta Ongizate Sailak antolatuta. Idoia Apaolazak emango du. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

29 BARIXAKUA

22:00 Motxaila Eguneko bertso saioa: Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Amets Arzallus eta Alaia Martin. Gai jartzaila: Maialen Olazabal. Mendaroko San Agustin kulturgunean. Sarreak salgai Morroskilon eta Aitz Beltzen, 5 euroan.



Aureliana Gallego Soto

"Nana"

2019ko martxoaren 7an hil zen, 83 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

Zure oroimena beti izango da gure bihotzetan.



Mari Carmen Azkue Villar

2019ko martxoaren 9an hil zen, 88 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

Maitasunez, beti gure bihotzean.



Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

Egunez: 09:00-20:00

Iluntzean: 20:00-22:00

Larunbatak: 9:00-14:00 (*)

15 BARIXAKUA	16 ZAPATUA	17 DOMEKA
Egunez Garitaonandia	Egunez Etxeberria	Egunez Etxeberria
Egunez Garitaonandia	Egunez Etxeberria	Egunez Etxeberria
18 ASTELEHENA	19 MARTITZENA	20 EGUAZTENA
Egunez * Fernandez	Egunez Garitaonandia	Egunez * Oruesagasti
Egunez Garitaonandia	Egunez Garitaonandia	Egunez Etxeberria
21 EGUENA	22 BARIXAKUA	23 ZAPATUA
Egunez Barrenetxea	Egunez * Ibañez	Egunez Garitaonandia
Egunez Barrenetxea	Egunez Garitaonandia	Egunez Garitaonandia
24 DOMEKA	25 ASTELEHENA	26 MARTITZENA
Egunez Garitaonandia	Egunez Etxeberria	Egunez * Fernandez
Egunez Garitaonandia	Egunez Etxeberria	Egunez Yudego
27 EGUAZTENA	28 EGUENA	29 BARIXAKUA
Egunez Yudego	Egunez * Oruesagasti	Egunez Barrenetxea
Egunez Yudego	Egunez Barrenetxea	Egunez Barrenetxea

* Fernandez:
Herriko enparantza 4,
Garagartza (Mendaro)
943 756 142

* Ibañez:
Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638

* Oruesagasti:
Kalebarren, 9 (Soraluze)
943 751 384

Urte guztian, gaeuz: 22:00-09:00
Zulueta. San Agustin kalea, 5 (Eibar)
943 820 498

Zinea (Herriko Antzokian)



'Destroyer, una mujer herida'

15 barixakua: 21:30

16 zapatua: 19:00 / 22:15 (VOS)

17 domeka: 19:00

18 astelehena: 21:30

'La enfermedad del domingo'

(Ongarri zinekluba)

21 eguena: 21:30

'María reina de Escocia'

23 zapatua: 19:00 / 22:15 (VOS)

24 domeka: 19:00

25 astelehena: 21:30

'Las aventuras del pequeño Colón'

24 domeka: 16:30

PINTURA ETA DEKORAZIOA
CORDON VILARCHAO
cordonvilarchao@telefonica.net
San Roke, 7 - Olasope, 18, Pab. 25-26
943 740 570 / 636 98 61 62



Sebastian Artetxe Mendizabal

2019ko martxoaren 11n hil zen, 86 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

Zure ondoan bizitza pozgarria izan da. Ez zaitugu ahaztuko.





Manu Sanchez

Izaro Etxegibel



Euria egingo duela dirudi. Hala diote. Hala da. Badator ekaitza. Zerua beltz, garrasika, trumoikada betean; euria gogotsu, haizea istiluan; denboralea. Ura dakar zeruak, zaparrada goitik behera, haize bolada.

“Ura dakar zeruak, bustita daude kaleak, bustita sentimenduak...”.

Abisatu gabe etorri da ekaitza; edo abisatu arren, ez dugu pentsatu nahi izan, berehala, bete-betean, harrapatuko gaituenik. Terrazako mahai eta aulkiak gordetzeko astirik gabe; kanpoan esekita geneuzkan arropak barrura garaiz sartzeko betarik gabe; alfer-alferrik guardasolak, alferrik aterkiak.

Esan ziguten, baina ez dugu sinetsi nahi izan. Hala ere, datoren moduan hartu behar. Egin dezagun dantza euritan, bai menik gabe; jar diezaiogun aurpegi ona eguraldi txarrari; bihur ditzagun egun goibelak egun argi; zoritxarrari irri eginez, bai-

kor. Marraz dezagun eguzkia euritan, marraz beza zeruak ostadarra. Senti gaitezen aske, busti-bustita, senti ditzagun ur tantak goitik behera.

Nahiz eta handia izan barealdi nahia ekaitzaldi gogorrenean, ez da gaitzik histen ez denik; ez da gaitzik onik ez dakarrenik. Gaitzen berri ez dakienak nekez omen du ontasuna estimatzen. Eguzkia maitatzeko, iluna eta lainoa ezagutu behar omen da. Egon gaitezen lurra busti eta ereindako hazi guztiak ernalduko direlakoan, “...euria izan nahi dut, lur zapalduetan suak itzalduz... euri izan nahiko nuke, zure itsasoraino helduz, guda zauriak zure gorputza bustiaz sendatuz...”.

Ekaitz guztiak labur. Ez da ehun urte iraungo duen gaitzik, ez eta hori jasan dezakeen gorputzik ere. Eta bitartean, atertu arte, egin dezagun euritan dantzan.

Zirimiri, euri, ekaitz, trumoi, tximista, denborale, tenpesta, enbata, tifo, zikloi, urakan... ikasi dut euritan dantzan. “Denbora txarrari aurpegi ona jartzen badakit, *holan* nabil ni...”.

“Egon gaitezen lurra busti eta ereindako hazi guztiak ernalduko direlakoan”




II. URTEURRENA

Justo Arriola Zubiaurre

2017ko martxoaren 7an hil zen, 89 urte zituela.

***Isiltasunean izan dira
zure lana eta bizitza,
beti izango zara
gure oroimenean eta bihotzean.***

Etxekoak



II. URTEURRENA

Mariano Leyaristi San Martin

2017ko martxoaren 23an hil zen, 91 urte zituela.
Haren oroimenez II. urteurreneko meza izango da,
martxoaren 23an, zapatuan, 19:00etan
Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian.
Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.

***Zure falta sumatzen dugu,
baina gure bihotzetan zaude.***



IV. URTEURRENA

Patxi Ajubita Ayesta

2015eko martxoaren 16an hil zen, 61 urte zituela.

***Lau urte zu gabe,
lau urte egunero zu gogoratzen.
Lau urte zu maitatzen,
lau urte eskertzen gure artean egon zarela.***

Zure senideak



Biba Hasier!

Hasier Etxeberriaren oroimenez

Euskara batua:
Zer lortu dugu?
Zein dira erronkak?

Mikel Zalbide eta Andres Alberdi
Martxoak 27, asteazkena
19:00
Kultur Etxeko hitzaldi-gelan

Etxera bidean, Xamarrekin

Xamar
Apirilak 3, asteazkena
19:00
Kultur Etxeko sotoan



ELGOIBAR
IZARRA
KULTUR ETXEA